

Atlantik gaiñez, egazka

Aita ONAINDIA'k

Nekezak izan oi dira asieran gauzak. Baita gizaldi onen lenengotan Europa'tik Amerika'ra, eta andik ona, egaz etortea be; gaur egun, ostera, oso erreza dozu. Zer-baiterako dira giza-aurrerakuntzak.

Lau urte iraun eban naziño ar-terko gerrak, Europa'n beintzat, oraindik ikutu barik egozan gairak askori zirkin eragin eutsoren, ur lur ta airezkoa jakiña. Gauza askori eragin jakon orduan inguru osoaz jabetu al izateko.

Lau urteko guda zakarrean (1914-1918), guztiz trebetu zan egazkintza. Oindiño, baiña, garai artuko egazkiñak etziran eldu bost milla ta geiagoko itxas-azal gaiñez egaz egiten. Gizonak, alan be, osotuko eban laster egazkada errime ori.

M. R. Orteig
jaunaren deia

Beti eder babesle edo Mekena bat, baita egazlariantzat be. 1919'ko apirillean, Orteig frantses-amerikarrak dei bat zuzendu euren mundu guztiko egazki-la-

riai, ziri-ezten eder zana, 25.000 dolarreko saria jarriz, egazkada zuzenean Paris Nueva York'egaz, edo aldez bestera, lenengoz alkar-tzen ebezanarentzat.

Dei au etzan lortu-eziña, etzan utopi bat. Urte aretan, ain zuzen be, egingo ziran Atlantik ur-zabal-dia airez zearkatzeko lenengo saioak; iñor etzan, baiña, ausar-tzen berau burutzen bitartean gel-di-aldirik egin gabe.

Urte bereko maiatzaren 16'an, iru motordun iru hidroabioik ur-teten dabe Terranoba'tik Azores'erantza. Read komandanteak da-roana amabost ordu ta amazortzi minutura Horta'n daukagu; beste biak Atlantik erdian kokatu bear izan dabe. Read'ek egazkada jaso ta Lisboa dauka aurrez urre. Auxe izan zan, ekin-aldika, Ipar-Atlan-tik lenengoz zearkatu zanekoa, or-duko 130 kilometrora legez.

Inglesak be saiatu ziran, Alcock eta Brown batez be, Terranoba'tik Irlanda'ra eltzen; amasei ordu ta amabi minututan burutu eben ugartera itzulia. Lur-artzean izan zituen euren goraberak, baiña leen-egipen aundien ohoreak me-rezi izan ebezan.



Paris'a iritxi zan unea.

Paris-Londres. Tolosa-Barcelona (1919)

Ixil-une luze samarra. Egazkin fabrikak aire-untzi arruntak egiten diardue bizkor be bizkor, Europa'ko zeruan jarri nairik egaz-lerro azkar eta araupekoak; orrtxe jarri nai zan ogeigarren gizaldiko garraino erabatekoa. Or dozuz Paris-Londres eta Paris-Bruselas'ko ibilliak; orduantxe jarri zan baita Tolosa-Barcelona'rako bidai-lerroa be. Azkenez Paris Txile be alkartu nai zan.

Onek, une baten beirik-beirik Orteig'en amezak atzeratu egin zian, naiz-ta egazkari gazte pilan izan aren deiak akulatuarak; gortan esku artu ebenak batez be abar txo ziran erri-garraioan baita auzear zori-billa indarrak neurria naiago ebenak. Aeronautikako itortian josi nai ebezan erri-izenak.

Ipar-amerikarrak osoz eben beste saio bat Atlantik zearri guraz. Goi-munduari bita bat eztea zan, Islandia, Groenlandia eta Labrador'tik Atlantik zabala zerkatuz. Egazkada au, arriskutsua goraberaz aberats, ondo be ondo osotu zan.

Ondorengo urteetan, 1923an lur-gaiñean proba ta esperientzi asko egin ondoren, egazkinzaren zelaia asko luzatu da. Ortze daita, urte orretan, egiazko saio bat egingo da Orteig'en sartia esanitzeko. René Fonck dozu orain saio egille: Nueva York'etik Paris'era eldu nai. Lortuko ez? Egaiñak eginda be, lurretik gorteko, karga geiegi daroalako edo erdoa gorzantz; porrot egin dau.

Atlantik mukes

Oraingoan moltza bat da zorbilla dabillena, eta askoren iradialanak, geienetan, emai oso izan dau. Egazkin-fabrikak be orain ebiltzan, ez motel gero gar bita.

baiño. Beretzat nai eban bakotxak abentura ori, antxiñatik amestua. Gixi ziran, 1927'an, zeozer uste ebenetatik, euren egazkiñen bat ortaroko eratu nairik ez ebiltzanak. Egalariai orobat egazkin-eredu baten billa ebiltzan, egoki ta onena uste ebena aurkitu nairik. Oneik bizka-azten eben egazkin-etxea, egazkadea erreztuz.

Maiatzaren 7'an, albiste izugarria Paris'en: Nungesser eta Colgoizaldean jasoko dira, Nueva York'erako bidea arturik. Eta jentetza aundia da La Bourget'era doana goratze ori ikustera. Iru ta erdietan hangar'etik atera dabe «Txori Zuria» motor bateko biplano edo lau egako bat, eta onek eroango ditu euren ustez elburura.

Nungesser, munduko Gerra ezkerro, ospe aundikoa da; zoriaren edo eriotzaren billa doa, eta Coll, itxastar eta egalari, eguraldia ta oneri buruzko azken albistak azterizen ari da. Eguraldi txarra egingo dau; alan be, lauretan motorra berotzen, eta bostetan, karlingara doaz gizon biak. Erregarritan lau tonelada daroetz, baiña Nungesser'ek gora dau jasoten egazkiña, ederto be ederto. Laiño artean gorde ziran. Betiko? Nungesser eta Coll etziran geiago agerri.

Lindbergh: leenengo garaipena

Frantses gizon biok galdu arren, ez jakuzan kikildu itxasoz beste aldetik egaz egiteko gertu dagozan gizon bipillak. Nueva York ondoko egazkin-zelaiak ixillik dagoz azken saioaren zain; eguraldiaren argi-une baten zain, ain zuzen, udabarri aretan bada muker agertzen da ausartzi ta oldarkerietarako. Maiatzaren 20'garrenean arduraz daukaguz airelariak «Roosevelt» zelaian.

Ogeitalau urteko pilotu gazte bat dozu C. August Lindbergh saio au egingo dauana; azken albiste artu dau onek: zeruko lainoak obetuz doaz, eta kukuak zelan joten dautson ikusi nai. Egurats zear doa, Wright motor bateko egazkiñean, eta berau da gairra lenengo ta bein bakar-bakarririk egaz dagiana. Asko ibillitakoa da egaz, an-emen eta aro on naiz txarrez, ekaitz aldian naiz eguraldi bikaiñez.

Lau aizetara zabal-azi dabe ajenziak egazkada orren izparra; Amerika ta Europa urduri dagoz zer jazoko. Lenengo Terranova'n ikusia dabe egazkiña, lurra itxi ta amabi ordura; gero amalau ordu barri bape barik. Urrengo egunean, Irlanda'ko itxasaldeko irratia egazkin ez-ezagun baten igarora iragarten dabe, Lindbergh'ena




Lindberg Paris'en bideramonean.

naitaez, eta, andik laster Ameri-
ka'rik eturren egazkiak Europa
ko lurra ikutzen eban bere gurpe-
llakaz. Orreig'en saria irabazi du.
Garaipen zorianantua benetan, bai-
ña baita ezbear ikaragarria be-
mea lapurtu ta il egiten du.

Nor-geiagoka gogoeta

Ik bai ta nik ez? esan oi da eta
koetan. Garaipen onen ondoren,
beraz, nor-geiagoka bizia sartu du
angoen eta emangoen artean. Or
Chamberlin bagillaren 4'an ope-
zale; or Byrd almirantea, bere ar-
lagunakaz, Paris'era elchi naitik;
or abuztuaren 24'an amerikar
egazlari bi —Brook eta Schie-
munchuari itzulia egin gurata. Bai-
ña askorxo izan dira, asi ta birtu-
tear izan dabonak; amerikar eta
ingles asko itxasoak irutsi dit-
nak.

Inglesak, alemanak eta frantsesak
eurenak erre ebezan 1927-
1928 eta 1929'an, taldeka ta be-
karka alogin aundiak eginak gait
gaitditzen. Emakumeak be aro-
toen dira, gizoneskoen paroko bai
naitik, lelaketa onetan. 1929'an
iru prantsesok osoruriko talde bai
dabil bizi-bizi entzute aundiak
egazkacia lotu al itaroko. Bai du
goinak zear, baiña pixu goiti de-
re, ixilik entzian sartu jaken er-
zon bidastia. Santander be, Gue-
llas'ko ondartzan lur-arra bai
izan dabe, argo jentza oso arri-



Italo Balbo 24 hidroabioiekin Chicago'ra iritxi ondoren.

rik itxita, Arxidura bardiña izan
za, illabete geroago, Williams eta
Yancey, Erroma'raniza joiazala, an
joxi ziranean,

Plus Ultra

1929'an itxartu ziran espainia-
rak be Atlantik itxasoko lenengo
gudatean parte hartzeko. Or dizdiz-
ka oraindik «Plus Ultra»-k esku-
natu zitun ereiñotzak Rio de la
Plata'ra egindako joan-etorri go-
pangarria; prest dago bertatik,
kaskar eta ala-olako izan nai ez
dauan Ramon Franko, Alkazare-

tatik New York'era jauzi egin gu-
raz. Hidroabioi baten doaz bera,
Gonzalez Galarza komandantea,
Ruiz Alda kapitaina Madariaga
mekanikua. Mediterraneo urak ba-
gillaren 21'an itxi ta egazkiñaren
aztarnarik be etzan izan; aste oso-
an Espaiña urduri ibilli zan billa.
Azkenez, bagillaren 29'an inglez
abioi baten Azores'tik 100 milla-
ra ikusi eban erdiazan gizonakaz.

Paris'tik Nueva York-era

Iñok egia geuk be nai izaten
dogu burutu. Baita egazlarien ar-

tean Lindbergh'ek egia be. Eta 1929'ko garagarrillaren 13'an, Costes'ek eta Bellonte'k biok pilotu bihurtu, egingo dabe arek egia, edo beintzat alegindu; Azores'era eltzean, an sortzen jakezan aize gogorrak urtean-puntura bituzten ditu. Beste saio bat: Paris'tik Mauritania'ra, Europa'tik Amerika'ra baiño bidarilo luzeagoa buruz. Ba dakie aizeak zelan ezi be.

Amsualier batek Paristik itxasoa zearkatu dau. Baiña frantses egazkintza da gogotsuen lan dagiana: Lindbergh'i ikusaldia ordaindu bear jako. Costes eta Bellonte ortan dabiltz; irailaren 1'an, bere sei toneladakaz, Nueva York'era tza doa euten egazkiña. Ogetama sei ordu geroago Manhattan'go zentzupian aurkitzen zan. Egazlaren poza ta ospea!

Errez dabiltz ondoren bide onatik, ara ta ona. Eta ez gizonak bakarrik; 1932'an, leenago bidaz lez ibilte ori egia eukan Amelia Earhart emakumeak be, amerikar biptillak, berak inor barik egin eban Terranoba'tik Irlanda'ra.


Gomutagarria da, 1932'an, espainiarrak Kuba'ra egindako zearkatzea be. Barberan kapitana ta Collar bere laguntzaillea. Sebilla'tik urten eban 1933'ko bagillaren 10'an, goiz-goizetik, eta ogeta emeretzi ordu ta berrogetamar

minutu ondoren Casapueblo'ra irazten eban zentzupian, eta Kuba'ra ta Mexiko'ra jartzen.

Gaur, leena otono

Itxas-trango orduak ez dira berriak emon zituen, baina berriak be, ez gixxi; aizeak ez dira Atlantik gainditu gaurerako gaurerak. Eta besteak beste orduak be egin opata, iruzurten orduak ebanak. Douglas Corrigan, aldeez, Europa'ra tza egazkintza egin moz, eta amerikar gobernuak egin gozpenak ipini, ordu jakin eban Los Angeles'era joala eban eban eta aire-ontziak, goiztar eban eban, eta indarra artu, Irlanda'ko bidean jartirik. Korpea bideez egazkiña zuzendu eban egero okerrean, konturatu hazi Atlantik zearkatu ebala eban eban ison gobernuari; Irlanda'ko lortara jo ebala bere itxas-ortuz aberi bat izan ebalako.

1932'an agertu zan itxas-pilotuean leenengo erraldoia esku Alemanen hidroabioi DO-X den amahi motortek saka egia. Eran da ibilli uretan ezik. 25 edo 30 metro goratu ta beera eban, ta bait berezko egoitza. Saka eban eldu zan Nueva York'era, eta Azores'tik itzulirik. Itxas-pilotu tanketa onek inportantzi eban euki eban urtietan, eta eban inglesak, amerikarrak eta frantsesak.



«Kondor» alemana Atlantikoa igaro ondoren.

sak alkarren leian ibilli ziran tresna oneik egin eta erabilten.

Ondoren dator alemanen «Condor» egazkina, geroko egazkin aundien eredu. Egazkin onek zuzeanean erre eban Nueva York'era-koa: Berlin'etik ara 24 ordutan. Andik egun bira, biurkera, 20 orduan egiña, 335 kilometro orduko.

Ipar-amerikarrak asi ziran orduan bizi-bizi lanean. Eta leen ezina iruditzen zan bidea gero ta errezago ta zabalagotuz joian. 1949'an il zan Raymond Orteig, ogel urte aurretik berak jarritako sariaren frutuak ikusirik. Urte

orretan sortu zan Munduko Guda izan zan itxasoak zearkatu ta bideak laburtu zituana. Berrogetamar milla egazkada gitxienez egin ziran orduan Amerika ta Europa artean.

Gaur oso-osorik laburtuta dago Atlantik itxas-bidea. 1970'an, Lindbergh'en 35'garren urteurrena zala-ta, iru orduan egin eben amerikar egazkin indartsuak Nueva York'etik Paris'erakoa.

Rafael ABELLA'ren «La travesía aérea del Atlántico Norte cumple medio siglo», HISTORIA Y VIDA aldizkarian agerturiko idazlanen oinarrিতua.